

Izan, ala ez izan: horra hor auzia;  
ea nobleago zaigun fortuna gaitzaren  
harri eta gezikadak pairatzea, ala,  
nahigabe-itsaso baten aurka altxaturik,  
aurre egin eta azkena ematea nahigabeoi?

Izanik mintzatu, ala ez izatera isildu. Horra aukerak.  
Etsitzea, lo egitea, besterik ez; eta, lo horrez  
amaituko balitzaizkigu, bihotz-minarekin batera,  
eginbeharrari datxezkon mila ezbeharrak...  
Bai ihesbide irrikagarria horixe. Etsitzea, lo egitea;  
lo, amets alferretan galtzea: horra hor, bai, koska.

Ezen, nork lituzke jasango munduaren ukaldiak,  
zapaltzailearen makurra, harroaren destaina,  
talentu ukatuaren penak, legeen trabaitsuak,  
kargudunen burgoikeria, eta baliozkoak etsi-etsian  
eskasarengandik jasotzen dituen purrustadak,  
berak lezakeelarik betiko kito egin bertan kontuaz  
etsiaren sastakiaz? Gogoeta horrek du  
hain luzaro bizirik iraunarazten miseria.

Nork lituzke zamok eramango,  
bizi astun baten nekepean kexu-izerditan,  
ez balitz paradero ausaz beltzago baten ikarak  
gogoa aztoratzen digulako eta hobetzat joarazten  
oraingo gaitzak pairatzea, ezen ez oldartzea  
ezagutzen ez ditugun mentura batzuetara?

Hala gaitu kontzientziak koldar bilakatzen guztiok;  
eta hala du deliberoaren jatorrizko kolore kementsua  
arras gaizkitzen zalantza beltzaren zantzu zurbilak,  
eta hainbat egiteko funts eta munta larrikok  
horren kariaz du bere oldea bestetaratzen,  
eta ekintza izena galtzen...

Apal dezadan, baina, ahotsa:  
horra non datozen, Xabier Olarra buru,  
ezina ekinez egiten saiatzen diren hainbat...  
Arrastiri on, idazle, itzultzaile, irudigile,  
argitaratzaile jende jatorrok, ongi etorri  
zalantzen gaineko, krisien erdiko eta traben azpiko  
balentria xumeen ospakizun honetara,  
liburuaren sorgin etsigabeen akelarre xalora.  
Has bedi festa.